

*Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik*

**ITZULPENA<sup>1</sup>**

---

Araua: EUROPAKO PARLAMENTUAREN ETA KONTSEILUAREN 2009/3/EE ZUZENTARAUA, Kontseiluaren 80/181/EEE Zuzentaraua aldatzekoa, estatu kideen neurri-unitateen legeriak bateratzeari buruzkoa.

---

Ondorengo itzulpena Eusko Jaurlaritzak egin du Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko (IVAP) Itzultzaile Zerbitzu Ofizialaren bidez eta Zerbitzu honen ziurtagiriarekin.

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du inolako balio juridikorik.

---

<sup>1</sup> Jatorrizko testua, Europar Batasunaren Egunkari Ofizialean argitaratua, hauxe da: «*DIRECTIVA 2009/3/CE DEL PARLAMENTO EUROPEO Y DEL CONSEJO, de 11 de marzo de 2009, por la que se modifica la Directiva 80/181/CEE del Consejo relativa a la aproximación de las legislaciones de los Estados miembros sobre unidades de medida*»  
2009/3/EE Zuzentaraua (EBren Egunkari Ofiziala, L 114 2009/05/07koa)

*Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik*

## EUROPAKO PARLAMENTUAREN ETA KONTSEILUAREN 2009/3/EE ZUZENTARAUA

2009ko martxoaren 11koa

**Kontseiluaren 80/181/EEE zuzentaraua aldatzekoa, estatu kideen neurri-unitateen legeriak bateratzeari buruzkoa**

(Testu egokia EEEren ondorioetarako)

EUROPAKO PARLAMENTUAK ETA EUROPAR BATASUNEKO KONTSEILUAK,

Europako Erkidegoa eratzen duen tratatua eta, bereziki, haren 59. artikulua aztertu dituzte,

Batzordearen proposamena aztertu dute,

Europako Ekonomia eta Gizarte Komitearen irizpena aztertu dute [1],

Tratatuko 251. artikulua araututako prozedurarekin bat [2],

eta ondorengoak kontuan hartuta:

(1) 80/181/EEE [3] Zuzentaraua betez, Erresuma Batuak eta Irlandak salbuespenak amaitzeko data bat ezarri behar dute neurri-unitate batzuentzat, oraindik aplikatzen diren kasuetan. Hona hemen neurri-unitateok: *pint*, ontzi itzulgarrietako esnetan, garagardotan eta presiopeko sagardotan; *mile*, zirkulazio- eta abiadura-seinaleetan; eta *troy ounce*, metal preziatuen transakzioetan. Dena den, salbuespen horiek tokian tokikoak direla eta produktuen kopuru jakin bati eragiten dietela kontuan hartuta, esperientziak erakusten du salbuespenei eustea ez litzatekeela merkataritzarako zergez besteko oztopoa, eta, beraz, ez litzateke beharrezkoa salbuespenei azkena ematea.

(2) Komeni da argitzea 80/181/EEE Zuzentaruaren aplikazio-eremua bateragarria dela Tratatuen 95. artikuluan aipatutako helburuekin, eta ez dela soilik Europako berariazko jardueretarako.

(3) 80/181/EEE Zuzentaruaren, argibide gehigarriak erabiltzea baimentzen da 2009ko abenduaren 31 arte, zuzentaru horren eranskinetako I. kapituluaren araututako lege-unitateez gainera. Hala eta guztiz ere, produktuak lehen kapituluaren zerrendatutako unitateak ez diren beste batzuen bidez adierazita egon daitezkeen eskatzen duten hirugarren herrialde jakin batzuetara esportatzen duten erkidegoko enpresei eragozpenik ez sortzeko, komeni da argibide gehigarriak erabiltzeko baimenari eustea.

(4) 80/181/EEE Zuzentaruak barneko merkatuak behar bezala funtziona dezan laguntzen du, neurri-unitateak harmonizatze-maila bat ezartzen duenez. Testuinguru horretan, komeni da Batzordeak gainbegiratzea merkatuen bilakaera, zuzentaru horri eta bere aplikazioari dagokionez, eta, bereziki, barneko merkatuak funtzionatzeko egon daitezkeen oztopoei dagokienez eta oztopo horiek gainditzeko behar diren harmonizatze berriei dagokienez.

(5) Hirugarren herrialdeekiko merkataritza-harremanen testuinguruan, Ozeano Atlantikoaz bestaldeko Kontseilu Ekonomikoa barne, komeni da Batzordeak behin eta berriz adieraztea hirugarren herrialdeetako merkatuetan nazioarteko unitate-sistemako (SI) unitatetan etiketatutako produktuak soilik onar daitezela.

(6) Gainera, argibide gehigarriei esker, nazioartean gara daitezkeen neurri-unitate berriak pixkanaka eta modu egokian sartzeko aukera izango da.

(7) 1995ean, Pisuen eta Neurrien Konferentzia Orokorrean, SIren barruko aparteko mota gisa SI unitate gehigarrien mota ezabatzea erabaki zen, bai eta "radiana" eta "estereoradiana" SItik eratorritako dimentsiorik gabeko unitate gisa interpretatzea ere. Hala ere, horien izenak eta sinboloak erabil daitezke, nahitaezkoa izan gabe, SItik eratorritako beste unitate batzuen adierazpenetan, zer komeni den.

(8) 1999an, Pisuen eta Neurrien Konferentzia Orokorrean, SIren esparruan, "katala" ("kat" sinboloa) ezarri zuen jardura katalitikoa neurtzeko SIren unitate gisa. SIren unitate harmonizatu berriaren helburua medikuntzan eta

2009/3/EE Zuzentaraua (EBren Egunkari Ofiziala, L 114 2009/05/07koa)

## *Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik*

biokimikan neurri-unitateen adierazpen koherentea eta uniforme bermatzea zen, eta, horren ondorioz, harmonizatu gabeko unitateak erabiltzeagatik gaizkiulertuak izateko arriskua alde batera uztea.

(9) 2007an, Pisuen eta Neurrien Konferentzia Orokorrak "kelvin" unitatea definitzeko ohar bat onartu zuen, uraren puntu hirukoitzaren izate bereizien arteko aldakortasunaren iturri nagusietako bat ezabatzeko.

"Kelvina" uraren puntu hirukoitzaren tenperatura termodinamikoaren zati gisa definitzen da. Konposizio isotopiko jakin bateko urari buruzkoa da oharra.

(10) Erresuma Batuan eta Irlandan katastroan dagoeneko "akrea" ez denez erabiltzen, ez da horri buruzko salbuespenik behar.

(11) "Legegintza hobetzeko" erakunde arteko Akordioko 34. puntuak adierazitakoa betetzeko [4], bultzada bat eman behar zaie estatu kideei beren koadroak osa ditzaten, beren interesen eta Europar Batasunaren interesen alde, era horretan, ahal den heinean behintzat, transposizio-neurrien eta zuzendaritzaren arteko korrelazioa isla dadin, eta koadroak jendaurrean erakuts ditzaten.

(12) Egokia da, beraz, 80/181/EE Zuzentaraua aldatzea.

ZUZENTARAU HAU EMAN DUTE:

1. artikulua

Aldaketak

80/181/EEE Zuzentaraua honela geratu da, aldatu ondoren:

a) 1. artikuluko b) idatz-zatiaren lekuan ondoko testu hau jarriko da:

"b) eranskineko II. kapituluaren jasotakoak, 1973ko apirilaren 21ean baimenduta zegoen estatu kideetan soilik."

2) 2. artikuluko a) idatz-zatiaren lekuan ondoko testu hau jarriko da:

"a) 1. artikulutik eratorritako betebeharrak erabiltzen diren neurketa-tresnei, egindako neurketei eta neurri-unitatetan adierazitako magnitudeei buruzkoak dira."

3) 3. artikuluan, ondoko testu hau jarriko da, 2. paragrafoaren lekuan:

"2. Argibide gehigarriak erabiltzea onartuta dago".

4) Artikulu hau gehituko da:

"6 ter artikulua

Batzordeak merkatuaren bilakaeraren jarraipena egingo du, zuzentarau honekin eta bere aplikazioarekin lotuta, barne-merkatuaren eta nazioarteko merkataritzaren funtzionamendu egokiari dagokionez. Europako Parlamentuari eta Batzordeari bilakaera horri buruzko txosten bat eta egoki iruditutako proposamenak emango dizkio, 2019ko abenduaren 31n beranduenez."

5) Eranskina honela geratu da, aldatu ondoren:

a) 1. kapituluko 1.1. puntuan, "Tenperatura termodinamikoaren unitatea" paragrafoaren ordez testu hau jarriko da:

"Tenperatura termodinamikoaren unitatea

Kelvina, tenperatura termodinamikoaren unitatea, uraren puntu hirukoitzaren tenperatura termodinamikoaren 1/273,16 da.

2009/3/EE Zuzentaraua (EBren Egunkari Ofiziala, L 114 2009/05/07koa)

*Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik*

Kontuan hartu behar da materia-kantitateen koefiziente jakin batzuek zehaztutako konposizio isotopikoa duen urari buruzkoa dela definizio hori. Hona hemen:

2Hko 0,00015576 mol 1Hko moleko, 17Oko 0,0003799 mol 16Oko moleko eta 18Oko 0,0020052 mol 16Oko moleko.

(13. PNKO, 1967, 4. ebazpena eta 23. PNKO, 2007, 10. ebazpena)";

b) I. kapituluaren, 1.1.1. puntuan, tituluaren ordeztu hau sartuko da:

"SItik eratorritako tenperatura-unitatearen izen eta sinbolo bereziak, Celsius tenperaturaren kasuan";

c) I. kapituluaren, 1.2. puntuan, tituluaren ordeztu hau sartuko da:

"1.2. SItik eratorritako unitateak";

d) I. kapituluaren, 1.2.1. puntua ezabatuko da;

e) I. kapituluaren, 1.2.2. eta 1.2.3. puntuen ordeztu hau sartuko da:

"1.2.2. SItik eratorritako unitateen arau orokorra

Oinarrizko SI unitateetatik koherenteki eratorritako unitateak honela adierazten dira: oinarrizko SI unitateen berreketen biderkadura gisa, zenbakizko koefizientea bat dela.

1.2.3. SItik eratorritako unitateak, izen eta sinbolo bereziekin

Magnitueda	Unitatea		Adierazpena	
	Izena	Sinboloa	Beste SI unitate batzuetan	Oinarrizko SI unitateetan
Angelu laua	radiana	rad		$m \cdot m^{-1}$
Angelu solidoa	estereoradiana	sr		$m^2 \cdot m^{-2}$
Maiztasuna	hertzio	Hz		$s^{-1}$
Indarra	newton	N		$m \cdot kg \cdot s^{-2}$
Presioa eta tentsioa	pascal	Pa	$N \cdot m^{-2}$	$m^{-1} \cdot kg \cdot s^{-2}$
Energia, lana, bero-kantitatea	julio	J	$N \cdot m$	$m^2 \cdot kg \cdot s^{-2}$
Potentzia [5], energia-fluxua	watt	W	$J \cdot s^{-1}$	$m^2 \cdot kg \cdot s^{-3}$
Elektrizitate-kantitatea, karga elektrikoa	coulomb	C		$s \cdot A$
Tentsio elektrikoa, potentzial elektrikoa, indar elektroeragilea	volt	V	$W \cdot A^{-1}$	$m^2 \cdot kg \cdot s^{-3} \cdot A^{-1}$
Erresistentzia elektrikoa	ohm	$\Omega$	$V \cdot A^{-1}$	$m^2 \cdot kg \cdot s^{-3} \cdot A^{-2}$
Konduktantzia elektrikoa	siemens	S	$A \cdot V^{-1}$	$m^{-2} \cdot kg^{-1} \cdot s^3 \cdot A^2$
Kapazitate elektrikoa	farad	F	$C \cdot V^{-1}$	$m^{-2} \cdot kg^{-1} \cdot s^4 \cdot A^2$
Indukzio	weber	Wb	$V \cdot s$	$m^2 \cdot kg \cdot s^{-2} \cdot A$

2009/3/EE Zuzentaraua (EBren Egunkari Ofiziala, L 114 2009/05/07koa)

*Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik*

magnetikoaren fluxua				$A^{-1}$
Indukzio magnetikoa	tesla	T	$Wb \cdot m^{-2}$	$kg \cdot s^{-2} \cdot A^{-1}$
Induktantzia	henry	H	$Wb \cdot A^{-1}$	$m^2 \cdot kg \cdot s^{-2} \cdot A^{-2}$
Argi-fluxua	lumen	lm	$cd \cdot sr$	cd
Argiztapena	lux	lx	$lm \cdot m^{-2}$	$m^{-2} \cdot cd$
Aktibitateak (erradiazio ionizatzaileak)	becquerel	Bq		$s^{-1}$
Dosi absorbatua, energia komunikatu espezifikoa, kerma, dosi absorbatuaren indizea	gray	Gy	$J \cdot kg^{-1}$	$m^2 \cdot s^{-2}$
Dosiaren baliokidea	sievert	Sv	$J \cdot kg^{-1}$	$m^2 \cdot s^{-2}$
Aktibitate katalitikoa	katal	kat		$mol \cdot s^{-1}$

Oinarrizko SI unitateetatik eratorritako unitateak adierazteko I. kapituluko unitateak erabil daitezke.

Oro har, SItik eratorritako unitateak adierazteko, aurreko taulako izen eta sinbolo bereziak erabil daitezke; esate baterako: SIko biskositate dinamikoaren unitatea honela adieraz daiteke, esate baterako:  $m^{-1} \cdot kg \cdot s^{-1}$  edo  $N \cdot s \cdot m^{-2}$  edo  $Pa \cdot s$ ."

f) II. kapituluan ilara hau ezabatuko da taulatik:

"Katastroa | akrea | 1 ac = 4047 m<sup>2</sup> | ac". |

g) II. kapituluan, azken esaldiaren ordezk honako hau idatziko da: "Kapitulu honetan zerrendatutako unitateak elkarrekin edo aurreko kapitulukoekin konbina daitezke, unitate konposatuak osatzeko."

## 2. artikulua

### Barne-zuzenbidean txertatzea

1. Zuzentarau honetan ezarritakoa betetzeko beharrezkoak diren lege-xedapenak, erregelamenduzkoak eta administrazio-xedapenak onartu eta argitaratuko dituzten estatu kideek, 2009ko abenduaren 31 baino lehen. Berehala emango diote Batzordeari xedapen horietako testuaren berri.

2010eko urtarrilaren 1etik aurrera aplikatuko dituzte xedapen horiek.

Estatu kideek xedapen horiek ematen dituztenean, zuzentarau honi egin beharko diote erreferentzia, edo beren argitalpen ofizialean egingo dute erreferentzia hori. Estatu kideek zehaztuko dituzte erreferentzia horiek egiteko modalitateak.

2. Estatu kideek Batzordeari jakinaraziko diote zer-nolakoa izango den barne-zuzenbidea oinarrian arautzeko idatzitako testua. Xedapen horiek zuzentarau honek arautzen duen esparruan onartuko dira.

## 3. artikulua

### Indarrean jartzea

2009/3/EE Zuzentaraua (EBren Egunkari Ofiziala, L 114 2009/05/07koa)

*Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik*

Europar Batasuneko Egunkari Ofizialean argitaratzen denetik hogeit hamar egunera sartuko da indarrean hau,

4. artikulua

Hartzaileak

Estatu kideak dira honen hartzaileak.

Estrasburgon emana, 2009ko martxoaren 11n.

Europako Parlamentuaren izenean,

Lehendakaria

H.-G. Pöttering

Kontseiluaren izenean,

Lehendakaria

A. Vondra

[1] C 120 EO, 2008.5.16koa, 14. or.

[2] Europako Parlamentuaren legegintzako Ebazpena, 2007ko azaroaren 29koa (C 297 E EO, 2008.11.20koa, 105. or.), Kontseiluaren Jarrera Komuna, 2008ko azaroaren 18koa (C 330 E EO, 2008.12.30koa, 1. or.) eta Europako Parlamentuaren Jarrera, 2008ko abenduaren 16koa (oraindik Egunkari Ofizialean argitaratu gabea).

[3] L 39 EO, 1980.2.15koa, 40. or..

[4] C 321 EO, 2003.12.31koa, 1. or.

[5] Potentzia-unitatearen izen bereziak: "voltampere" izena, "VA" sinbologia, korrante elektriko alternatiboaren itxurazko potentzia adierazteko, eta "var" izena eta "var" sinbologia, potentzia elektriko erreaktiboa adierazteko. "var" izena ez dago CGPMren ebazpenetan sartuta.